



www.begiko.com

© Testua: 1995, MIKEL GARMENDIA

© Irudiak: 1995, MIKEL VALVERDE

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-12-4

Lege-gordailua: M-16310-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Zortzitik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Belle, Landetako sirena

Mikel Garmendia

Irudiak: Mikel Valverde

begiko

Landetarantz

Han gindoazen, autoaren barruan eta isil-isilik denok, gurasoak, arreba Itziar eta laurok Landetarantz udako oporraldia pasatzera. Oporraldi laburra izango genuen, astebete eskas, eta auto barruko isiltasun hark bazuen, bai, zeri-kusirik aurtengo udako oporrak hain laburrak izate horrekin.

5

Entzun berriak ginen Itziar eta biok udaroko sermoia: «Eta ez pentsa, orain egun batzuk pasatuko ditugu Landetan, baina abuztu osoa ikasten!». Hura izan zen aitaren azken esaldi biribila. Egia esan, joandako kurtsoan inoiz baino gehiago luzitu ginen: Itziarrek kalabaza bat ekarri zuen etxera (Frantsesa) eta nik, berriz, bi (Natur Zientziak eta Literatura).

Nik neuk hautsi nuen isiltasun hura, Baiona pasatu eta kilometro batzuetara aitari ustez garrantzirik gabeko galdera bat egin nionean. Ustez diot, zeren sekula ez bainuen pentsatuko «Autopistan al gaude oraindik?» galdetzeak eztabaida piztuko zuenik aitaren eta amaren artean.

6 —Ez, sartu berriak gara autorrutan —erantzun zidan aitak.

—Autorrutan? —esan zuen amak—. Ez al dira gauza bera autopista eta autorruta?

—Nola izango dira, bada, gauza bera! —erantzun zion aitak.

—Zer diferentzia dago, bada, bien artean? —berriro ere amak.

—Gauza bat da autopista eta bestea autorruta! —esan zuen aitak, eztul egin eta urduritzen hasirik.

—Baina autorrutan ez dago pagatu beharrik, ezta, aita? —ausartu zen Itziar esaten.

—Jakina! —bota zuen lasai asko.

—Begira zer pinudi ederrak! —esan zuen amak, gaia aldatzearren—. Joan den mendean



landatuak dira guztiak. Lehen, eremu honetan ez zegoen ezer, hondarra eta zingirak besterik ez.

Itziar eta biok gustura gindoazen hala. Betidanikoa du amak ohitura hori, edozein bi-daia egin baino lehen, goazen lekuari buruz irakurtzekoa, eta arrebak eta biok adi-adi eta




gustura entzuten genizkion Landen gaineko kontuak: antzarak hazi eta pateak egiteko ohituraren gainekoak, bertakoen bizimoduaren gainekoak...

Noizbehinka, autoaren abiadura markatzen zuen orratzari begiratzen nion txunditurik.

Begiratu nueneko batean, 150ean gindoazen!
Bide ertzean *Côte landaise* zioten txartelak
ikusten genituen hainbestero, *Sortie 11*, *Sortie*
12... ziotenekin tartekaturik. *Sortie 15* delako
irteerarako bi kilometro falta zirela iragartzen
zuen txartela ikustean, aitak esan zuen:

—Hauxe da gurea. Hemendik sartu behar
dugu.



Sun Yan

10 Handik sartu eta Contis Plage iragartzen zuen txartelari jarraitu genion. Handik gutxira, bihurgune batera iritsi ginen: eskuinaldera Contis Plage; ezkerretara, Mezos. Mezos herria! Iristen ari ginen!

Mezos herrian sartu baino dexente lehenago hasi ziren azaltzen Sun Yan, gure kanpinaren izena, iragartzen zuten letreroak, letrero urdin eta hori kolorekoak.

—Begira, Koldo! Sun Yan hori da gure kanpina —esan zuen Itziarrek.

Kanpineko aparkalekuan gelditu eta ama *Bureau* jartzen zuen etxetxoan sartu zen paperak bete eta pagatzera, gure artetik bera moldatzen baita ondoen frantsesez.

—Aurreko neskatila horri jarraitu behar diogu, bizikleta gainean dagoen horri —esan zigun autora itzuli zenean—. Berak eramango gaitu gure dendak jarriko ditugun lekuraino.


Mantso-mantso pasatu ginen kanpin barruko bideetatik. Itziar eta biok kontent eta aztoraturik geunden ordurako.

—Begira, Koldo! Hori da igerilekua! —esan zuen Itziarrek.

—Bai —atera zitzaidan niri—. Eta begira, han ping-pongean aritzeko mahaiak. Aupa!

—Lasai, lasai —esan zigun aitak—, lehen-dabizi, dendak jarri behar ditugu eta.

Autoaren maletegitik kanpindendak atera, lurrean zabal-zabal eginda utzi eta han hasi ginen astebetetz gure etxe izango zirenak muntatzen. Aitak eta amak denda handia jartzen zuten bitartean, Itziarrek eta biok geurea, txikixeagoa, jarri genuen. Behin dendak muntatu eta kanpineko mahai, aulki eta gainerako traste guztiak beren lekuan jarri ondoren, honela esan zigun amak:



—Oso ongi. Goazen orain supermerkatu-
 Aste osorako erosketak egingo ditugu.

Oso denda txikia zen, baina denetik zegoen:
 janariak, arropak, aldizkariak... Aitak eta amak
 dendako apaletatik jakiak eta beste hartzen zi-
 tuzten bitartean, Itziar eta biok aldizkariei be-
 gira gelditu ginen. Hizkuntza desberdinetako al-
 dizkariak eta egunkariak zeuden: alemanezkoak,



ingelesezkoak, frantsesezkoak, gaztelerazkoak... Hizkuntza desberdinetakoak izanik ere, denek zekarten Indurainen argazkia lehen orrialdean. «Indurain, *le roi*» zioen, esate baterako, frantsezko egunkari handi baten lehen orrialdeak.

—Indurain erregea? Txirrindularia zela uste nuen —xuxurlatu zidan Itziarrek, bihurri-aurpegia jarriz.

—Ez lelokeriarik esan —erantzun nion nik—, munduko txirrindularirik onena da eta Indurain...

—Barkatu..., barkatu... —esan zidan Itziarrrek, ni amorratzen jartzen nauen barre egiteko modu batez.

14 Oso bitxia zen hango giroa. Batzuek frantsesez egiten zuten elkarren artean; beste batzuek ingelesez eta bakarren batzuek baita alemanez edo holandesez ere (ez nago oso ziur). Baina, denetan bitxiena dendako emakumea zen, bakoitzari bere hizkuntzan erantzuten baitzion.

—Konturatu zara, Koldo? Emakume horrek hizkuntza guztiak dakizki!

—Jakina —erantzun nion nik—, honelako leku batean lan egiteko hizkuntza guztiak jakin beharko dira.

—Gurea ere bai?

—Bai, noski —erantzun nion ziur—. Begira, oraintxe galdetuko diot zerbait euskaraz. Zer nahi duzu galdetzea?

—Galdetu zenbat balio duten txokolatezko gozoki horiek —esan zidan Itziarrek.

—Zenbat balio dute gozoki hauek, anderea? —galdetu nuen sano asko.

—*Comment tu dis, petit?* —erantzun zidan andereak.

—*Non... non...* —atera zitzaidan, lotsa-lotsa eginda.

—Lasai, Koldo —esan zidan Itziarrek, barreri ezin eutsiz...

Berehala konturatu nintzen zein inozoa izan nintzen eta, Itziarri begiratuta, barrez lehertu beharrean hasi ginen biok.

—Zer gertatzen zaizue? —galdetu zigun halako batean amak.

—Ez, ez, ezer ez —esan nion amari, oraindik ere barrez.

—Tira. Nahi baduzue, zoazte igerilekura, aitag eta biok erosketak kanpindendetara eramaten ditugun bitartean. Ordubete barru bazkalduko dugu. Badakizue, ordu bietan hemen.

—Aupa! Goazen, Itziar! —esan nion pozik arrebari.

16 Igerilekutik gertu samar jarriak genituen dendak eta berehala iritsi ginen. Oso igerileku polita zen, tranpolin eta guztikoa. Igerilekuaren alboan tabernatxo bat zegoen, terraza handi bat zeukana, eta batzuk bazkaltzen hasiak ziren ordurako terraza hartako mahaietan.

—Zeinen goiz bazkaltzen duen jendeak hemen! —pentsatu nuen. Uste dut Itziarrek ere gauza bera pentsatu zuela, baina ez genuen ezer esan, zeren, egia esan, ez baitzitzraigun gehiegi axola. Guk ordubete geneukan igerilekuan ibiltzeko, eta hori zen garrantzitsuena.

Terrazatik hurbil futbolin bat ere bazen, berehala begiz jo nuena.

—Ea arratsaldean aita konbentzitzen dugun partidatxo bat jokatzeko...

—Bale —erantzun zidan Itziarrek.

Douche obligatoire jarrita zegoen igerilekura sartu aurreko putzutxoaren goiko aldean.

Elkarri hitzik esan gabe, bakoitzak bere dutxa-botoia sakatu eta:

—AAAIH! Zer hotza! —oihukatu genuen biok batera.

Korrika batean hurbildu ginen igerilekuaren ertzer a eta, ez bat eta ez bi, PLAUST, kapen egin zuen Itziarrek eta, PLAUST, kapen nik ere haren atzetik.

17

Zoragarria. Han ibili ginen, orain igeri, gero tranpolinetik salto eta horrela etengabe. Halako batean, erlojuari begiratzea otu zitzaidan:

—Itziar, ordu biak! Goazen!

Igerileku ertzean utzita geneuzkan toailak hartu, aurpegia justu lehortu eta korrika batean abiatu ginen gure dendetarantz.

Berandu samar iritsi ginen, baina ez ziguten errietarik egin. Seinale ona. Bazirudien gurasoak ere jabetzen hasiak zirela oporretan ginela. Bazkalondoan, mahaia jaso eta harrikoa egitera abiatu ginen Itziar eta biok, hori baitzen opor haietako gure obligazioa.

Nik platerak eta ontziak xaboiztatzten nituen eta Itziarrek uretan pasatu eta balde handian sartzen. Hartan ari ginela, gizon handi bat ikusi genuen guregana zetorrela aulki gurrildun bati bultzaka. Aulkian eserita neskato bat zetorren eta balde bat zekarren eskuetan, ontzi eta plater zikinez betea. Harrikoa egitera zetozen haiek ere.

—*Bonjour!* —esan zuen gizonak, gure ondoan jarri eta guri begiratu ere egin gabe.

Ez zuten guk bezala egiten: banan-banan xaboiztatu eta aklatatzen zituen neskatoak ontziak, baita gero baldean sartzen ere. Gizona, bitartean, hari begira zegoen.

—Kontu handiz garbitu, gero! —esan zion zakarki neskatoari—. Txinan erosi nituen eta oso garestiak dira.

—Bai, jauna. Kontu handiz garbituko ditut —erantzun zion apal-apal neskatoak.

Itziarrek eta biok isil-isilik jarraitu genuen gure lanarekin. Neskatoak berehala amaitu zuen.

—Gu baino beranduago etorri eta guk baino lehenago amaitu du —esan zuen Itziarrek, gizona eta neskatoa urruntzen hasi zirenean.

—Horixe —erantzun nion—, biren ontziak zituen eta guk, berriz, laurenak.

—Pena eman dit neskato horrek —jarraitu zuen Itziarrek—. Aspergarria izango da beti eserita joan behar izatea. Eta, gainera, gaizto-
aurpegia zuen gizon horrek.

19

—Ahaztu hori, Itziar, amaitu dugu eta guk ere. Goazen, ea aita konbentzitzen dugun eta ping-pongean eta futbolinean aritzeko txanponen bat edo beste ateratzen diogun.

Ez zitzaigun asko kosta aita konbentzitzea. Bazirudien opor-giroak aldatu egin ziola umorea.

—Tira, zoazte eta ibili meriendatzeko ordu-ra arte. Gero, igerilekura joango gara laurok.

Primerako arratsaldea pasatu genuen. Pentsa, ping-pongean, futbolinean, igerilekuan...

Afalondoan, berriro joan ginen Itziar eta biok harrikoa egitera, baina oraingoan ez ginen eguerdiko gizonarekin eta neskatoarekin suer-

tatu. Harrikoa egitetik itzuli eta kartetan aritu ginen gurasoekin. Guztiz aldatua zuten umorea eta berealditako barreak —eta baita tranpak ere— egin genituen.

—Bueno —esan zuen amak—, hamaikak dira, lotarako ordua. Garbitu hortzak eta zoazte zuen dendara, aitak eta biok telefonoz deitzera joan behar dugu. Berehala etorriko gara.

—Bale, ama —esan zuen Itziarrek.

—Gabon —nik.

Hortzak garbitzetik gentozela, igerilekuko tabernatxoaren ondotik pasatzean, kantu hotsa entzun genuen. Gizon baten ahotsa zen, itsusia bezain zakarra. *Vive les marins de la Bretagne!* leloa errepikatzen zuen behin eta berriro.

Taberna inguruko hesitik kirika egin genuen arrebak eta biok.

—Begira, eguerdiko gizona da! —esan zuen Itziarrek.

—Bai —erantzun nion—, eta aldamenean neskatoaren aulkia hutsik! Non ote da?



—Ez dakit, zer arraroa! —Itziarrek berriro—. Begira, Koldo, igerilekuko ura mugitu egiten da!

—A bai! Hurbil gaitezen pixka bat! —esan nuen nik.

—Begira, Koldo —xuxurlatu zidan Itziarrek—, neskatoa da, bainatzen ari da.

—Bai arraroa! Gaez itxita egoten da igerilekuko sarrera.

—Tira, goazen dendara, gurasoak iritsi baino lehen.

22 Bakoitza bere zakuan sartu eta berehala sumatu genituen aita eta ama iristen.

—Ez al du gau osoa kantuan emango moz-korti horrek! —entzun genion aitari.

—Lasai, gizona, hamar minutu barru itxiko dute taberna, hamabietan. Hala dio, behintzat, han jarrita dagoen kartelak.

Eta hala gertatu zen, hamar minutu pasatu baino lehenago sumatu genuen apaltzen gizon haren ahots zakarra, gero eta urrunago, gero eta urrunago entzuten zena.

—Joan dira etxera, nonbait —xuxurlatu zidan Itziarrek.

—Bai —erantzun nion—. Ea bihar berriro ikusten ditugun. Badakit zer egingo dugun: bihar gauean, berriro hurbilduko gara igerilekura.

—Gurasoek kremlera hotsa entzungo du-
te, ordea, dendatik irteten garenean —jarraitu
zuen Itziarrek.

—Ez, entzun: hortzak garbitzera joango
garenean, irekita utziko ditugu dendako kre-
mlerak, eta dendara itzultzean, barruan
sartu eta hiru kremlerak itxi beharrean, hiru
bider egingo dut kremlera hotsa azpiko kre-
mlera horietako batekin: ireki, itxi eta berriro
ireki. Hala, hirurak ixten ditugula emango du.

23

—Zer azkarra zaren, Koldo! —esan zidan
arrebak.

—Bah! —egin nuen nik, garrantzia kenduz,
baina harro, hala ere.

